

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

(HAZ) Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren funtzionamendua arautzen duen arautegia. Hasierako onespena (Udal Antolamendu Araudiaren eranskina). (2020/S893/19-O)

2019ko irailaren 28an, Udalaren Osoko Bilkurak hasierako onarpena eman zion Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren funtzionamendua arautzen duen araudiari, udal-arau organiko gisa eta, ondorioz, udal-erregelamendu organikoaren zati gisa.

Aurrekoa kontuan hartuta, testu hori jendaurrean jarriko da, oro har eta, bereziki, interesdunei entzunaldia ematea, horretarako iragarki hau ALHAOn, argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean. Epe horretan, edonork aurkeztu ahal izango ditu alegazioak, erreklamazioak, iradokizunak eta ekarpenak.

Nolanahi ere, eta testua ahalik eta gehien zabaltze aldera, iragarki hau argitaratuko da Udalako ZUINean, ediktu-taulan, eta udalerriko gizarte-komunikabideei jakinaraziko zaie. Gainera, Ordenantzaren iragarkia eta dagokion testu osoa Udalaren webgunean argitaratuko dira.

Erakusketa eta azalpen-aldi hori amaitutakoan, Osoko Bilkurak ebatziko du testuari egindako edozein alegazio, erreklamazio, iradokizun edo ekarpen, hala badagokio, testua behin betiko onartzeko eta, ondoren, ALHAOn osorik argitaratzeko. Hura osorik argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean jarriko da indarrean, TAOAL Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez.

Alegazio, erreklamazio, iradokizun edo ekarpenik aurkezten ez bada, behin-behineko une horretara arteko testua behin betikotzat joko da, Osoko Bilkuraren beste erabaki baten beharrik gabe. Nolanahi ere, osorik argitaratuko da ALHAOn, eta osorik argitaratu eta hamabost egun baliodunera arte geratuko da indarrean.

Laudio, 2020ko urriaren 5a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE